

Bi bailaretako paisaiaz gozatzuz, Urduña eta Ahedo-Angulo bitartean irteera antolatu du Aizkardik igandean ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-05-10 ▶ IV. urtea ▶ 881. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

XIV. Ibilaldi Neurtua antolatu dute Berastegiko basoetatik barrena

IGANDEA ▶ Basurde elkartearen ekimenez, 07:00etan hasiko da, eta 6 eta 8 ordu bitarte iraungo du

EZAUGARRIAK ▶ 30 kilometroko luzera eta 1.350 metroko desnibela du ibilaldiak ▶ 4



N. URBIZU

MILLAN TELLERIA ▶ ZALDUN IBILTARIA

«Zaldiek mesede egiten dute, asko dute emateko»

Zaldi ibilaldia antolatu dute larunbatean, Bidaniatik hasita; bide zaharrak ezagutzeko eta Tolosaldeko paisaiaz gozatzeko asmoarekin jaio da ekimena ▶ 5

TOLOSA ▶

Ekintzaileen Eguna egingo dute Tolosaldea LHIn

Urrats bat proiektua ari dira lantzen, ikasleei beren lantegia sortzen laguntzeko ▶ 2

LEITZA ▶



J. ASTIBIA

Patxi Arrazola auzoa, asfaltatuta

Seinalizazioa egitea besterik ez da falta lanak bukatzeko ▶ 7

TOLOSA ▶

Maiatzean ere, kultur ekitaldiak non-nahi

12. Musikariaren hilabetea izango da ▶ 3



TOLOSA ▶ HEZKUNTZA

Ekintzailearen Eguna egingo dute, aurten estreinakoz

Hilaren 19an izango da, Tolosaldea LHIn, Foru Aldundiak bultzatuta

ESTI EZEIZA

Duela bi urtetatik hona, Urrats bat proiektua garatzen ari da Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutua (LHI). Xanti Alberdi Urrats bat ekimeneko dinamizatzaile eta ikastetxeko Europako proiektuen arduradunaren esanetan, «egitasmo honen bitartez ikasleei aukera eman nahi zaie bakoitzak bere lantegia sortu ahal izateko».

Urrats bat proiektua abiatu baino lehen, Saiolan Asesoria Teknikoko ordezkari batek, bigarren ikaturtearen hasieran, hitzaldi bat ematen diete ikasleei, egitasmoaren berri azaltzeko. Hala, honen ondoren, interesatuek hamasei orduko prestakuntza saio batzuk jasoko dituzte asesore teknikoaren eskutik. Urrats bat hemendik aurrera hasiko da.

Proiektua osotasunean hartuta, hau da, lehenengo hitzalditik, bi entek finantzatzan dute: hasierako sentsibilizazio lana Euskal Gobernuko Lan Sailak finantzatzen du, eta ondorengo prozesua Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bigarren zati honetan, ikasleek proiektua norantz bideratu nahi duten aztertu beharko dute, horrela, merkatuaren egoeraren balantze bat egin eta hau gauzatu ahal izateko ikasketak bilatu. Prozesu honetan laguntzeko, Institutuak gela bat atondu du, gazteek nahi dutenean erabil dezaten. Honez gain, proiektuaren jarraipenean laguntzen diete.

Alberdik HITZARI azaldu dioenez, «egitasmo honi esker, orain arte bi enpresa berri sortu dira, biak ere, informatika arlokoak». Izan ere, bere usteetan, «errazagoa da horrelako



Urrats bat proiektutik jaiotako bideo jokoen denda bat da Tolosan dagoen hauXE. HITZA

lantegi bat sortzea, eta ez mekanika edo galdaragintza arlokoak».

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuaz gain, Euskal Herriko beste hainbat ikastetxek hartzen dute parte Urrats bat proiektuan. Hauek antolatu ahal izateko, Teknika enpresa koordinakuntza eta ikastetxeren formazioaz arduratzen da.

Ekintzailearen Eguna

Gipuzkoa sortzailea estrategiaren barruan, Foru Aldundiak bultzatuta, lehenengo aldiz, Ekintzailearen Eguna egingo dute hilaren 19an. Izan ere, Europako Batzordetik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa 2020 gogoeta estrategikotik, enpresa sortzailearen ezaugarriak bultzatu nahi dituzte: «Gogoeta, arriskuak onartzea, ardura, autoestimua, porrotari beldurrik eza...».

Estrategia horren barruan,

EKINTZAILEAREN EGUNA ▶

Bertan parte hartu ahal izango dute Lanbide Heziketako ikasleek nahiz gazteagoek.

MAIATZAK 19

08:30. Erakustokia jarriko dute institutuan, material guztiarekin.

10:00. Aurkezpena eta bideo emanaldia. Hau Parole enpresak prestatu du, *Sobre la empresa emprendedora* izenburupean.

irakaskuntzan, hilaren 19an egingo dute egun handia.

08:30ean hasiko dituzte ekintzak. Lehenengo, erakustoki bat jarriko dute ohialdun mahai batean. Bertan, merchandising guztia ipiniko dute, eta koaderno bat edo papelo-grafo bat errotuladorearekin,

parte-hartzaileek esaldiak idatz ditzaten enpresagintzari buruz edo antolatutako egunari buruz. Honez gain, posterrak, dosierak eta txapak ere jarriko dituzte.

Ondoren, 10:00etan, aurkezpena egin eta ongietorria emango diote Enpresa-sortzailearen egunari. Honen barruan, zuzendariak ongietorria emango du, eta dinamizatzaileak hizketaldi labur bat eskainiko du. Jarraian, Flash-aren aurkezpena egingo dute, dinamizatzaileak komentatuta; bestetik, DVDaren aurkezpena ere egingo dute.

12:00etan jolasak eta lehiaketa egingo dituzte. Alde bateatik, 12 urtetik gorakoek behar bat aurkeztu eta enpresaren bat antolatu beharko dute. Txikitxoenei, berriz, ideia bat marraztuaraziko diete. 13:00etan, azkenik, lunch-arekin itxiera emango diote jardunaldi bereziari.

BELAUNTZA ▶

'Itzultzaileak' izeneko mintegia gaur, KZgunean

Gaur, KZgunean, tutorearen bisita eta mintegia jasoko dute. Azken honetako gaia *Itzultzaileak* izango da, eta 10:00etatik 11:00etara eskainiko dute.

TOLOSA ▶

Mendi ibilaldia, Aralarko 13 gailurretatik

Aralar VI. Txirrita mendi ibilaldia antolatu du Oargi mendi taldeak hilaren 21erako. Amezketatik 06:00etan abiatuko dira, eta Aralarko 13 gailur igoko dituzte. Guztira, 45 kilometroko luzera izango du ibilaldia, Amezketan amaitzen den arte. Parte hartu nahi duenak 943 67 59 12ra dei dezake, edo oargi@telefonica.net helbidean egin dezake. Izen-ematea 10 euro ordainduko da.

TOLOSA ▶

Pirritx eta Porrotx pailazoak, bihar, Bonberenean

Bonbereneak maiatzerako antolatutako ekitaldien artean, gaztetxoentzako pailazo emanaldia izango da bihar. Pirritx eta Porrotx etorriko dira, 18:30ean.

TOLOSA ▶

Udaberrikoen Bordondantzako entsegua, bihar

Astero bezala, bihar ere sangoenetako Bordondantzako entsegua egingo dute Udaberri dantza taldekoek. 20:30ean, Igarondo igerilekuan elkartuko dira.

iragarki laburrak ▶

Basabi Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Telf. eta Fax: 943 65 55 87
img.: 649 368 994

Alkiza. Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.

Alkiza. Familia bakarreko txaleta, 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza

estreinatzeko, lau logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belauntza. Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

Berastegi. Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m2-ko lursailarekin.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean.

Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel.

Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Santa Maria plazan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Egoera ezinhobean.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea

terrazarekin, bainugela eta komuna, garaje itxia.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakusleho.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Izkina egiten duen 45 m2-ko lokal ederra salgai. Erakusleho handia.

KULTURA ▶

Aukerak barra-barra

Kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala egin du Udalak maiatzean; antzerki emanaldiak, erakusketak, kontzertuak, zine-kluba... izango dira

NOELIA LATABURU

Musikak hartuko du protagonismo gehien maiatzean, 12. Musikariaren harira. Baina hilabetero bezala, bestelako kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala ere egin du Tolosako Udalak. Antzerkia, erakusketak, pailazoak... guztiak bilduko dira herriko kultur gune ezberdinetan. Kultur Etxean, Aranburu Jauregian eta Bonberenean, hain zuzen ere.

Hona hemen maiatzean zehar han eta hemen izango diren ekintzen zerrenda, banan-banan zehaztuta:

ANTZERKIA

'Nora doa ero horri'. Hil honen 19an, ostiralarekin, Edurne Agirrezabalak emanaldia eskainiko du, Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iñaki Olazabal eskulturgilearen 'Oria ibaia proiektua'. Oria ibaiak zeharkatzen dituen zazpi herri apainduko ditu zazpi eskulturen bidez *Oria ibaia proiektua* izeneko lana aurkeztuz, Aranburu Jauregian. 2005-eko hasieran ekin zion proiektuari Olazabalek, eta 2006ko udaberriari du bukatzeko asmoa. Tolosan egingo du zapietako azkena. Arratsaldero bisita daiteke erakusketa, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

'Emakume bat heztea Herri bat heztea da'. Interred fundazioak antolatuta, Kultur Etxean izango da ikusgai, etzi bitartean.

Amigos de Cuba y p'Alante. Kultur Etxean erakusketa jarriko dute ikusgai, hil honen 22tik 27ra bitartean, Amigos de Cuba y p'Alante taldeak antolatuta.



Bihar Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira, Bonberenean. I. GARCIA

IKASTAROA

Sexualitatearen ingurukoak. Tolosako Gazteria eta Berdintasun departamentuek antolatuta, sexualitatearen inguruko ikastaroa abiarazi dute, ostira-lean izango dena, Kultur Etxeko aretoan.

MUSIKA

Fran Lasuen. Etzi, ostiralarekin, Fran Lasuenean emanaldia izango da entzungai, Fronton kafetegian, 23:00etatik aurrera.

Surfin Kaos eta Norton Klub. Bi taldeek kontzertua eskainiko dute Bonbereneako taula gainean, 22:30etik aurrera, hil honen 19an, ostirala.

Manta Ray. 22:30ean hasita, Manta Ray-ren kontzertua izango da, hilaren 20an, Bonbereneako taula gainean.

Banda Bassoti. Bonbereneak kontzertu berria hartuko du, hil honen 25ean, ostegunarekin. Oraingoan Banda Bassoti talde italiarra izango da bisitaria, 22:30ean.

Izaera eta Potemkin. 22:30ean, hil honen 26an, bi talde hauen txanda izango da Bonberenean.

Half Foot Outside eta Ya Te Digo. Bi taldeek kontzertua es-

kainiko dute hilaren 27an, larunbatarekin, Bonberenean, hilabeteko musika agenda ixteko.

Musika Eskolako kontzertua. 12. Musikariaren baitan, Beotibar pilotalekuan, 19:30etik aurrera, Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, hil honen 20an, larunbatarekin.

Miren Zeberio. 12. Musikariaren baitan, hilaren 22an, astelehen, Miren Zeberiorekin bibolin bikoteak Musika Eskolan bertan emanaldia eskainiko du, 19:00etatik aurrera.

Durangoko Kontzerbatorioko Orkestra. 12. Musikariaren baitan, durangotarren emanaldia izango da entzungai, hil honen 23an, Musika Eskolan, 19:00etatik aurrera.

Lau Haizetara Akordeoi Orkestra. 12. Musikariaren baitan ere, orkestrak kontzertua izango du Musika Eskolan, 19:00etan, hilaren 24an.

Oarso boskotea. 12. Musikariaren baitan eta Musika Eskolan, 19:00etan, hilaren 25ean, Oarso boskotearen emanaldia izango da.

Txintxarri abesbatza. 12. Musikariaren baitan, Alegiako abesbatzaren saioa izango da

20:00etan, Musikal Eskolako aretoan.

Instrumentu Autoktonoen Eguna. 12. Musikariaren baitan, eta edizioa ixteko, goizean zehar instrumentu autoktonoen eguna ospatuko dute; arratsaldean, 19:30ean, Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du, Plaza Berrian. Hilaren 27an, larunbatarekin.

ZINE-KLUBA

'American Pie: Band Camp'. Bonberenean, maiatzaren 14an, 19:30ean.

'Sueño de una noche de invierno'. Bihar, Kultur Etxean, 21:30ean. Goran Paskaljevic zuzendariaren *Sueño de una noche de invierno* filma izango da ikusgai. Sarrerak 2 euro balio du.

'A las cinco de la tarde'. Hilaren 18an, ostegunarekin, Samira Makhmalbaf zuzendariaren *A las cinco de la tarde* filma izango da ikusgai, Kultur Etxean, 21:30etik aurrera. Sarrerak 2 euro balio du.

'Lista de espera'. Juan Carlos Tobia zuzendariaren *Lista de espera* filma izango da ikusgai, hilaren 25ean, 21:30ean.

KIROLAK

III. HITZA Pilota Txapelketa. Esku Pilotaren III. HItza Txapelketa. Beotibar pilotalekuan, 10:00etan, hil honen 13an eta 26an.

Gimnasia erritmikoa. Euskal Ligako Txapelketa izango da, Usabalen, 19:30ean.

BESTERIK

Pirritx eta Porrotx. Bihar, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira Bonberenean, 18:30ean.
Ipuin kontalaria. Rosa Martinezek ipuin kontaketa zuzenduko du, 3 eta 6 urte arteko haurrentzat. Hilaren 16ean, asteartean, 18:00etan, Errotan.

ARRANTZA ▶

Amuarrain eta Zipridoen Txapelketa, Oria eremuan

Igande honetan izango da benjamin, alebin eta infantil mailakoentzat

N. LATABURU

Tolosako Arrauntzaleak elkarteak eta Arrantzako Lurralde Federakuntzak Probintziako XXXII Amuarrain eta Zipridoen Arrantza Txapelketa antolatuta dute, hil honen 14an, igandean, Oria ibaiako eremuan. Bigarren urtez gauratuko da txapelketa gune honetan. Parte-hartzaileek kizena eman beharko dute Tolosako arrantzaleak-en egoitzan (Soldadu kalea, 5) gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara. Benjaminak —9 urte artekoak—, alebinak —10 eta 11 urte artekoak— eta infantilak —12 eta 14 urte bitartekoak— lehiatuko dira. Guztiek trofeoa, domina, kanabera, txirrika eta material ugari jasoko dituzte.

HEZKUNTZA ▶

Ikasketak eta lan irteerak hizpide, gaur, Orixen

ERREDAKZIOA

Gaur, 19:00etatik aurrera, hitzaldia eskainiko dute Orixen Institutuan. Bertan ikasketa eta lan irteerei buruzko informazioa luzatuko zaie bertaratuei, bai eta unibertsitatean zein zikloetan matrikulatzeko egin beharreko tramiteei buruzko informazioa ere.

▶ **hilberriak** ▶ **urteurrenak** ▶ **eskertzak**

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95

19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldecohitz.a

hilberriak ▶

Margarita Murua Unanue

Herenegun hil zen 80 urte zituela

Amama, zure xamurtasuna, eskuzabaltasuna eta maitasuna ez dizkizugu zuk merezi bezainbeste eskertu, baina inoiz ez ditugu ahaztuko

Eskerrik asko amama guztiagatik.
Zure bilobak eta birlobak, maitasunez

AKUA (ZESTOA), 2006ko maiatzaren 10a

BERASTEGI ▶ MENDIA

Basoetatik barna, XIV. Ibilaldi Neurtua egingo dute igandean

Basurde elkarteak antolatutako ibilaldiak 30 kilometroko luzera eta 1.350 metroko desnibela izango du

IÑIGO TERRADILLOS

Igande honetan, Basurde elkarteak antolatuta, Berastegiko Basoetatik 14. Ibilaldi Neurtua egingo dute. 07:00etan irtengo dira mendizaleak Berastegiko plazatik, eta 30 kilometroko bidea egin ondoren 8 ordu ingururen bueltan iritsiko dira berriro Berastegira.

Ibilbidean zehar mendizaleek kontroletatik igaro beharko dute, eta pasatutako denborak zehaztutako epearen baitakoa



lazko ibilibidearen une bat. J. S.

izan beharko du. Halaber, gutxienez 6 ordu eta erdi eta gehienez 8 ordukoa izan beharko du ibilaldi osoa egiten igarotako denborak.

Ondorengo puntuak igaroko ditu ibilaldi neurtuak: Erroizpe (Larte), Boketea, Ulizar, Urto, Plazaola, Ipuliño, Gorosmendi eta San Lorentzo. Azken puntu horretatik, hau da, San Lorentzotik Berastegirantz jarraituko du bideak, bertako plazan amaitzeko. Ibilaldiko unerik gogorrena eta garaiena Ipuliñoko

ZENBAIT DATU ▶

IZEN-EMATEA

- ▶ 943 68 35 35 zenbakian.
- ▶ Ibilaldiko egun berean, 06:00etatik aurrera.
- ▶ 5 euro ordainduko dira.


IBILALDIA

- Luzera:** 30 kilometro.
- Desnibela:** 1.350 metro.

Ibilbidea: Berastegi, Erroizpe (Larte), Boketea, Ulizar, Urto, Plazaola, Ipuliño, Gorosmendi, San Lorentzo eta Berastegi.

Denbora: 6 ordu eta erdi gutxienez eta 8 ordu gehienez.

Anoa guneak. Ulizar, Urto, Gorosmendi eta Berastegin, jan eta edateko aukera.



Puntu hauetatik igaroko da XIV. Ibilaldi Neurtua. HITZA

punta izango da, baina kontuan hartu beharko dira ere Larte, Ulizar eta San Lorentzo. Bestalde, jatekoa eta edatekoa ez da faltako, hiru gune jarriko baitituzte horretarako, eta edozein larrialdi gertatuz gero ere, bertan izango da Gurutze Gorria ibilaldiak iraun bitartean.

Ibilbide Neurtua amaitzen duten guztiei diploma bana emango diete norberaren ize-

narekin, eta guztien artean mendiko materiala zozketatuko dute.

Berastegiko 14. Ibilaldi Neurtuan parte hartu nahi duenak 943 68 35 35 telefono zenbakira deitu beharko du, edo bestela igandean bertan eman ahal izango du izena, ibilaldia hasi aurretik, 06:00etatik aurrera. 5 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek.

BIHARTIK aurrera berria berria

kazeta eredu berria

berritzailera, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

gurean ULERTUKO DUZU

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

BERROBI ▶

Sukaldaritza erakustaldia egingo dute

XVI. Kultur Astearen baitan, gaur, 18:00etan, sukaldaritza ikastaroa egingo du Tolosako Ikatzeta tabernako Kontxi Dorronsorok Bide Ona elkartearekin; haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da bertan. Bihar, berriz, 17:30ean, Idoia Sanchezek ipuin kontaketa saioa eskainiko du; eta 21:30ean, Ainhoa Arregiren hitzaldia izango da Etxolan, Peruko egoeraren inguruan.

IBARRA ▶

Pirritx eta Porrotx hilaren 19an, kiroldegian

Galtzaundi Euskara Taldeak Pirritx eta Porrotx pailazoan Maite zaitut ikuskizuna antolatu du hilaren 19an, ostirala, 17:30ean, kiroldegian. Sarre-rak Ibarako udaletxean eta Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6-Tolosa) daude salgai, 5 eurotan.

LEABURU-TXARAMA ▶

Jaiak antolatzeko bilera egingo dute bihar udaletxean

Urtero bezala, Leaburu jaiak antolatzeko helburuarekin bilera egingo dute Leaburu-Txaramako herritarrek. Bilera bihar izango da, 20:00etan, udaletxean, eta «duen garrantziagatik» bertara joateko deia luzatu diete herritar guztiei.

GAZTELU ▶

Antzinako euskal jantziak margoetan

Gazteluko Ostatuan Edorta Muruaren erakusketa izango da ikusgai hil honen amaierara arte. Aintzinako euskal jantziak buruzko margo lanek osatzen dute erakusketa, eta Ostatura irekita egoten den egunetan, hau da, ostiral arratsaldetik igande gaue-ra bitarte, izango da bisitatzeko aukera.

MILLAN TELLERIA ▶ ZALDUN IBILTARIA

«Zaldiak askotan gizakiak baino hobeak dira, mesede egiten dute»

Larunbatean Bidanian hasiko dute zaldi ibilaldia, bide zaharretatik Tolosaraino iristeko, eta inguruko paisaia ederrak ezagutzeko eta haiekin gozatzeko asmoz



N. URBIZU

NEREA URBIZU

Albizturko zaldun ibiltaria dugu Millan Telleria. Kirol hau aspaldi praktikatzen du, eskualdean lehenengoetarikoa izanik. Larunbateko ibilaldiko antolatzaileetako bat izanik, zaldirik ez dugunok ere ahoa bete hortz uzteko moduko bidaia egingo dute.

Nolatan zaldi ibilaldia?

Benoa, kirol hau praktikatzeko Leitza inguruan ibilaldiren baten bat egiten dute, baita Elgoibarren ere. Bidania, Albiztur eta Asteasuko zaldun talde bat harremanetan jarri ginen, eta hau egitea pentsatu genuen. Tolosaldeko txoko ederrak ezagutzeko bide egokia iruditzen zaigu, ingurukoentzat batez ere. Hain zuzen ere, lehenengo bide zaharrak, garraio bide galduak hartu eta handik ibiliko gara.

Prestatuta berezia behar al da?

Ibilaldia ez da konplikatu. Zirkuito lasaia da, eta zaldia dominatuz gero %70ean etor daiteke. Zaldiak eta behorrak berez ez dira batera erasokorrak. Animaliek errepidea ez ezagu-tu arren, ez da presaka joateko

IBILALDIA

«Ez da konplikatu. Zirkuito lasaia da, eta zaldia dominatuz gero larunbatekoan nahi duena etor daiteke»

ibilaldia: beraz, trotean doazen heinean zaldiak erosoago sentitzen doaz. Tolosako trama da kezka gehien sortzen diguna, kotxeen zaratak, bozinak eta horrelakoak entzungo dire-lako, baina udaltzainek lagunduko dutenez —asko eskertzen dugu haien laguntza, eta Tolosako Udalarena, orokorrean—, ez dugu ezer arrarorik espero. Zaldia horretara ohitu egiten da.

Larunbateko ibilaldian parte hartzeko izena eman behar al da aurretik?

Besterik gabe, gutako baten batekin harremanetan jartzea besterik ez da behar: Bidania-ko, Asteasuko edo Albizturko zaldunen batekin hitz eginda nahikoa izango da. Guk 50 bat zaldun espero ditugu. Eguraldi onarekin, beti gehiago etorriko dira.

ZALDIEN MANTENUA

«Ia txakur batek baino mantenu merkeagoa dauka zaldi batek, baina leku irekia eta zabal samarra behar du»

Zer behar da animalia egoera onean izateko?

Mantenu berezirik ez du behar. Jende askok uste duena baino errazagoa da, ez da hain gogorra. Lekua izatea garrantzitsua da, zelai pixka bat, eremu ireki bat. Orokorrean, ia txakur ba-

ZALDIEN IZAERA

«Zaldiak desberdinak dira haien artean: izaera ezberdinekoak dira, hori hasieran antzematea zaila bada ere»

tek baino mantenu merkeagoa dauka. Pentsua behar du, egunean bi razio ematen dizkiogu, goizean eta arratsaldean. Garbitu ere egin behar da. Horrez gain, ukuiluan egotea ez da gehiegi komeni, atera egin behar da, aztoratu egiten baitira.

ZALDI MARTXA ▶

Irteera. 08:00etan elkartuko dira, Bidaniako Rebiglas lantokiaren aurrean; 09:00etan abiatuko dira.

Ibilbidea. Bidaniatik Beazeaga iturrira jo, Zelaibiki zeharkatu eta Ueta basoetatik barrena ibiliko dira, Montezkuera iristeko. Handik Erreka baserrira jaitsiko dira. Tolosako azoka lekuan 11:30ak aldera egongo dira. 12:00ak arte itxarongo dute bertan denak elkartu arte, eta San Frantzisko ibiltokia zeharkatuko dute, Bentaundiraino. Isastegi sagardotegira igo, Marea gainetik igaro eta Intxur kaskoraino joango dira. Santa Marinara iritsi eta han bazkalduko dute jatetxean. Nahi duenak arratsaldean beste ordubateko ibiliko da, Santa Agedara joanez, berriro Bidaniara jaisteko.

Iraupena. Goizean 4 bat ordu, arratsaldean ordubete.

Noiztik daukazu zaldiekiko zaletasun hori?

Nik zaldiak duela 20 urte daukat. Inguruan ez zuen beste inorrek, kirol zaldia, behintzat. Jendea ere harritu egiten zen. Baina gero, ondoko herrietan bazirela ere jakin nuen, eta gutxinaka gero eta jende gehiagok dauka kirol-zaldia etxean. Gehienbat zaldiarekin harreman hori izateko daukat zaldia: gustuko ditut animaliak, eta zaldia bereziki. Askotan lagun-garria da izatea, asko baitute emateko.

Zaldiak haien artean desberdinak al dira?

Jende mota bezainbeste, izaera ezberdinekoak dira zaldiak ere. Antzematea zaila da, baina azkenean hori ere ikasten da. Zaldia eta behorra ere ezberdinak dira: behorrak mimo zentzu gehiago dauka zaldiak baino, eta probetxu gehiago atera ahal zaio, uneren batean lesionen bat baldin badu, ama izateko aprobeztatu egin daitekeelako. Zaldi lesionatu batek baliu gutxiago dauka.

Zure etorkizunak kontatzen du

ATEAK ZABALIK:
06/05/11 eta 06/05/31.
Orduak: 12:00tan eta 18:00tan.

Berrio pasealekua, 50 - Donostia
Tel. 943 316 900 - www.cebanc.com

Cebanc-Cdea
PROFESIONALEN PRESAKUNTZA
FORMACIÓN DE PROFESIONALES

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Jateke arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozogintza eta okigintza.
- Ostatu arloa.
- Bidai agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemen administrazioa.
- Informatika-aplikazioen garapena.
- Sistema informatikoen ustiapena.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

ADMINISTRAZIOA

- Administrazio eta finantza (A eta D).
- Idazkaritza.
- Administrazio-kudeaketa.

LANBIDE HASTAPENEN IKASTURTEA

GUTUN@K ▶

Euskararen txanda dugu

Beti entzun izan da bizi garen eskualde honetan euskaraz beste inon ez bezala hitz egiten dela. Euskara jatorra, euskara garbia, euskara eredugarria... Eskualde honetako batzuek ere iritzi berekoak direla behin eta berriro adierazi digute. Lerro hauetan ez gara hasiko zein neurritan hau zuzena edo okerra den, eta oraindik gutxiago euskararen labela zeinek duen eta zeinek ez. Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako Euskaraz Biziko taldekideok beste zereginetan gabilgita.

Ikastola eta euskara beti

joan ohi dira erabat loturik. Ikastolen sorreran euskara zen zutaberik nagusienetako bat; gure ikasleen trebakuntzan ikasmaterialetan egiten ari garen esfortzua ikaragarria da; gure ikasleek euskara ezagutzeaz gain gurea den mintzaira normaltasun osoz erabiltzeko aurrera eramaten ditugun kanpainak (Euskaraz Bizi, esate baterako) eta beste hainbat lanketa guk ohikoak ditugu... Azkeneko atalxo honetan geldidunetxo bat egin nahi dugu, gure seme-alaben euskara erabileran, alegia.

Hizkuntzalariek, psikologoek... adituek behin eta berriro gatzetxoek dituzten ereduak erabateko eragina izango dutela gure ikasleengan aditzera

ematen dute. Bizitzaren arlo askotan hau ulergarria da, eta euskararenean zer esanik ez. Ezagutza eta erabilera, hizkuntzei dagokionez, ez dira maila berean ematen. Beste era batera esanda, ezagutzak ez duela erabilera ziurtatzen. Askotan ematen ez den horretan eragin nahi badugu, denok eredu bihurturik errazago lortuko dugula bistakoa da. Gure ikasleek behar dituzte ereduak, eta hori gertukoengandik bada, erabilera ziurtatze aldera ariko gara etengabe. Zeintzuk gara gertuko horiek? Denok maila berean gara eredu?

Aita, ama eta bestelakoak, sarri samar bezala, eredugarri izaten jarraitu behar dugu

euskararen erabilera ziurta dezagun. Euskaldunen artean euskaraz aritzea oraindik ere ez da arrunta, eta egoera hori gure seme-alabek hartzen badute «normaltzat», non gertuko da gure azkeneko asmo hori? Dendari euskaldunekin euskaraz, irakasle euskaldunekin euskaraz, herriko tabernari euskaldunekin euskaraz... «- Ama/aita, *dame el bocadillo!* - Aizak/n, zorrotik atera arte itxoin beharko duk/n bada!». Etsaerak dioen bezala, ura pasatuta presa egitea alferrikakoa izango da.

IBANE SARASA ETA MILA

UGARTEMENDIA (ANOETAKO HERRI ETA IRURAKO IKASTOLETAKO EUSKARAZ BIZIKO TALDEA) ▶ ANOETA-IRURA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

ALKIZA ▶

Herri afarirako eta bazkarirako izen-ematea zabalik

ERREDAKZIOA

Etzi hasiko da sanisidrotako Aste Kulturala Alkizan. Tartean bazkari eta afari herrikoia egingo dute. Bazkaria igandean izango da, 14:30ean, Otsamendi jatetxean. Herri afaria astelehenean izango da, Ostatu jatetxean, 21:00etan, Udalak antolatuta. Etxe bakoitzetik bi pertsona joan daitezke. Beste norbaitek joan nahi izango balu, afari osoa ordaindu beharko luke. Izena jatetxeetan eman behar da, eta etzi bukatuko da epea.

Bestalde, Alkizako Udalak herriko herribideen katalogoa edo inbentarioa onartu berri du. Jendaurrain dago jarrita, eta herritarrek hildaren 22ra arte dute epea egoki ikusten dituzten alegazioak aurkezteko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaro zko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA ▶

Bilera festa alternatiboak antolatzeko

Anoetako festa alternatiboak antolatzeko bilera egingo dute gaur, 18:00etan, udaletxean. Antolaketa orokorrean jorratuko badute ere, bereziki herri kirolen gaia izango dute mintzagai.

ANOETA ▶

AGAKo areto futbol taldearen play-off partida

Anoetako Gazte Asanblada areto futbol taldeak larunbatean jokatu du, Azpeitian, 18:00etan, mailaz igotzeko play-off partida. Autobusa antolatu dute hara joateko. Izena Itzuli tabernan eman behar da.

VILLABONA ▶

Behatokiko zuzendariaren hitzaldia

Paul Bilbao Behatokiko zuzendariak hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, udaletxeko balio anitzeko gelan. *Euskaldunon hizkuntz eskubideak* du izenburu saioak.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb., 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

VILLABONA ▶ MENDIA

Urduñako eta Aialako bailaren ikuspegiak gozatzeko aukera

Aizkardi Mendi Elkarteak ibilaldia antolatu du igande honetarako Urduña eta Ahedo-Angulo bitartean



Mendizaleek topatuko duten irudietako bat: Ungino Tologorritik. HITZA

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkarteak beste irteera bat antolatu du igandean honetarako. Urduña-Ahedo Angulo ibilaldia egingo dute, Garobel mendi-lerroa ezagutzeko, bere hainbat gailurrekin eta pasabideekin. Ibilaldia Tartangan hasiko dute Fraileburu (860 metro) gailurrera igoz, Koba-Handi igaro ondoren. Hortik Txarlazo (933 metro) gainera joko dute.

Mendizaleek Salbada mendi-lerroko gailurrak pasatuko dituzte jarraian: Txolope (1.035 metro), Solaiera (1.039 metro), Bedarbid (1.041 metro), Fuente de La Lastrilla (1.130 metro), Ungino (1.105 metro), Eskutxi (1.135 metro) eta Aro Gaña (1.137 metro). Azken honetan Aro Atekatik behera joko dute, Encima Angulon ibilaldia bukatzeko.

Martxa guztian Urduñako eta Aialako bailaren ikuspegi

ederra izango dute ibiltariekin, eta Salbada mendi-lerroak osatzen duen harresia igarotzeko hainbat pasabide zeharkatu dituzte.

Zazpi ordu eta erdi inguru emango dituzte 26 kilometroak burutzeko. Interesatuak izena emateko 943 69 44 58ra deitu behar dute, edo Aizkardioko egoitzara azaldu. Bihar da azken eguna horretarako. Irteera 07:00etan izango da, Olaederri kiroldegia ondotik.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Patxi Arrazola auzoa asfaltatu dute, eta lanak bukatzeaz dira

Seinalazioa egitea gelditzen zaie; bitartean, aparkaleku berria egiteko lanak hasita daude igerileku inguruan

JAIONE ASTIBIA

Kooperatibetako urbanizaketa eta zolaketa lanak azken ukietan daude. Zolaren seinalazioa egitea gelditzen da, 2004. urtean hasi zituzten Patxi Arrazolako urbanizaketa eta zolaketa lanekin bukatzeko.

Asteazkenean hasi ziren auzoko kaleak asfaltatzeko presatzen, azkenik: berdindu eta brea botatzen; herenegun bukatu zuten langintza hori. Atzo eguerdian espaloietan gelditu-

tako zaborrak jasotzen aritu ziren langileak, eta obran lanean erabili dituzten makinak ere erretiratu dituzte. Orain, behin betiko lanak bukatzeko, lurreko seinalazioa egitea eta seinalazio bertikala jartzea gelditzen zaie.

Lan hauekin lotuta, bere garaian, Kooperatibako auzo horretako aparkaleku eskasiari erantzuteko planteatutako egitasmoari ekinga daude: igerilekuaren eta Arkixkil futbol zelaiako aldagelaren tarteko ere-

muan, lur-pilak eta trasteak zeuden erabilpenik gabeko eremua izaki, aparkalekuak egiteko lanak ere hasita baitaude.

Aparkaleku berria

Aurreko egunetan lur mugimenduak egiten aritu dira; zoru saneatuta, gero zolaketa lana egitea geldituko da.

Eremu horretan 20 bat aparkaleku berri sortuko omen dituzte.



Asfaltaketa bukatuta, atzo garbiketara lanean aritu ziren langileak. J. A.



Igerileku atzeko eremua, aparkaleku berria egin behar dutena. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Iaz lan istripuz hil zen Mari Jose Aranburu gogoratzeko

ERREDAKZIOA

Gaur Leitzako paper-fabrikako langile zen Aranbururen heriotzaren lehen urtemuga dela eta, bere lankideek elkarretaratzea eginen dute «lan istripuei aurre hartzea beharrezkoa delarik, segurtasuna eta arriskuak ekiditea eskatuz». 13:30etik 14:30era dute egitekoa, iaz langile honen heriotza eragin zuen lan-istripua gertatu zen lekuan berean. Ekitaldian parte hartzeko gonbidapena egin diete langile gutzietan eta herritarrei.

Aranburu iaz zendu zen, lantokira zihoala, aparkalekuan, karga-deskargara joandako ibilgailu batek harrrapatuta.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Tolosako garraio enpresa batek gidaria behar du C gidabaimenarekin. Eskarmentua garraio nazionalen eta nazioartekoan. 629 71 48 31.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Igoerako ligaxkako lekua ziurtatuta du Aurrerak

Altsasuri irabazi dio, jokatu-ez jokatu ibilita

J. ASTIBIA

Leitzako Aurrera futbol taldeak igandean ziurtatu zuen igoerako ligaxkako lekua: Altsasuri 3-2 irabazi ondoren, matematikoki jada sailkapena lortua dute.

Igandean, 16:30ak aldera botatako tormobe-jasa zelata partida jokatzeko zalan-tzak izan bazituzten ere —zelaila lohituta gelditu zen, putzuz beteta eta arrastoak ere urrututa— aurrera egin zuten, eta baita hiru puntuak etxean gelditzea lortu ere; ez, ordea, zailtasunik gabe.

Izan ere, partidu guztian zehar leitzarrak zelaian nagusi izan baziren ere, altsasuarrak aurreratu ziren. Atsedenera, banako berdineketan joan ziren, Gomezek sartutako golari esker. Baina bigarrenen berri ere kanpotarrak aurreratu ziren, «eta alarma guztiak biztu zitzaizkigun», dio Arangoak, bigarren berdinketaren egileak. Garaipeneko gola berriz ere Gomezek sartu zuen.

Orain, bi partidu falta direla, sailkapeneko 2. lekua mantendu nahi dute, ligaxkarako mesede egingen dietelako.

LEITZA ▶ POLITIKA

Kartel bat ikusi nahi ez eta UPN batzarretik joan da

Larraingo hautetsiek 182.2 artikularen aitamena egiten zuen kartela eraman zuten

ERREDAKZIOA

Leitzako udaletxean lehengo ostiralean burutu zuten udalbatzarretik alde egin zuten UPNko ordezkariak, jendartean, Larraingo hautetsiek agerian jarri zuten kartela zela eta eta alkateak kenduari ez zuelako.

Jakitera eman dutenez, ostiraleko saioan, jendartean, egon ohi diren lekuan, Larraingo hautetsiak 182.2 artikulua delakoaren aplikazioaz eta dagozkien zinegotzien

itzuleraz aitamenak egiten zuten kartelarekin jarri ziren. Hori ikusita, batzarra hastear zegoela, UPNko hiru ordezkariak alkateari kartel hura kenduazteko eskatu zioten. Hark, Larrainek bere iritzia agertzeko eskubidea bai omen duela argudiatuta, ez omen zuen eskaera onartu; hala, UPNko kideak batzarra utzi zuten.

Batzarrak aurrera jarraitu zuten, gutxieneko kuorunik ez zegoela eta puntu bat mahai gainean gelditu bazen ere.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

III. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak ikusgai. Gure weborrian, *Iruditzen* izeneko atalean, ikusgai daude lehiaketako finalerako sailkatutako 8 argazkiak. Ikusi eta gero bozkatu politen, dagokion zenbakia aipatuta, HITZARA deituz edo e-mail-ez idatziz.

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industrigunea, 18
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347



Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udararako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatzeke deialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartatzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraritzeko aukera.

Balaratuko da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoa: B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuzergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 10a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldean



beroena

14

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Festa alternatiboak antolatzeko bilera. 18:00etan, udaletxean.
Belauntza, Leaburu-Txarama. Igandean Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute Udalek. Gaur da azken eguna izena emateko Leaburuko udaletxean, Belauntzako Kultur Etxean eta 943 67 00 20 telefono zenbakian, 8 eurotan.

HITZALDIAK

Gaztelu. Zaintzen duen pertsonaren zaintza. 18:00etan, elkarteetan.
Tolosa. Ikasketa eta lan irteerei buruzko informazio saioa. 19:00etan, Orixen.
Villabona. Euskaldunon hizkuntz eskubideak. Paul Bilbao Behatokitiko zuzendariarekin. 20:00etan, udaletxean.
Villabona. Euskal Herria y el socialismo. Eloy Val del Olmok izen bereko liburua aurkeztuko du, 19:00etan, Gaztetxean. Maiatza Gorriaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. Irauli uhinak.
21:00-22:30. Bide okerretik.
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

‘Nortasun ezaugarriak’

TOLOSA ▶ Erreferente diren lau ileapaindegi jaso ditu Espainiako ‘Vogue’ aldizariak maiatzeko alean; horien artean da Tolosako Honnekin

Salón Honnekin

Se crió entre los ruidos y el olor de laca de la peluquería de sus padres. El año pasado, Aitor Odriozola fundó su propio salón, una ciber peluquería, en el que se feliz dirigiendo un equipo de siete personas.

Sus objetivos
Ofrecer un servicio profesional, rápido y fundamental, siempre con un trato educado y agradable.

Quiénes son sus clientes
Hombres y mujeres de todas las edades.

Una mujer famosa y su cabello
Me encanta el look juvenil de María Teresa Fernández de la Vega. Sólo le haría unos contrastes de color en narrón.

Queremos un contacto.
Tel. 943 652 430. Tolosa (Gipuzkoa).



Honnekin-i buruz Vogue aldizkarian argitaratutako; eskuinean, Aitor Odriozola. HITZA

ERREDAKZIOA

Kontatzeko asko duten lau marken buruei galdegin diegu». Hala dio, *Nortasun ezaugarriak* izenburupean, Espainiako *Vogue* aldizkariak maiatzeko alean argitaratu duen artikulotxoak. «Eta zer dela eta ekarri duzue txoko honetara?», galdetuko dio bategen bategen bere buruari. Bada, lau ordezkari horien artean eskualdekorik badagoelako: Tolosako Honnekin ileapaindegia, hain zuzen ere.

«Produktuen marken arabera, Espainiako lau ileapaindegi aukeratu dituzte, eta horien artean Euskal Herriko bi gaude: Iruñeko Mikel Luzea eta gu», azaldu dio Hitzari Honnekin-eko Aitor Odriozolak. Sevillako (Espainia) Alfonso Delgado eta Alacanteko (Herrialde Katalanak) Creative Peluqueros dira beste biak.

Aldizkariaren tartetxo txikia hartzen duen arren —«horrelakoetan badakizu, posta elektronikoki bidez egin genuen elkarrizketa, oso-oso luzea, baina gero labur-labur eman dute denon berri»—, pozik da Odriozola, beren lana ezagutzera emateko balio izan duelako: «Horrelako ekimen guztiak onak dira guretzat, herrian, eskualdean eta hemendik kanpo ere gure berri jakin dezaten».

Besteak beste, ileapaindegiaren ezaugarriak, helburuak eta bezeroen profila jasotzen ditu artikulotxoak. Eta, aldamenean, Odriozolaren argazkia ageri da. «Madrilera joan behar izan dugu, modelo lanak egitera», dio umoretsu.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Mari Carmen Salaberria (Tolosa, Bitarte baserria). Amona jatorrenari, bere familia eta biloben partetik. Segi horrela.



URTE ASKOAN
Julen Jauregi (Belauntza). Gaur 7 urte. Zorionak eta muku handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Iker Garate (Amaro). Gaur zortzi urte. Zorionak ebekoen partetik.

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte

hitza argazki lehiaketa


eman botoa

BOTOA EMATEKO

▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Telefonoz: 943 65 56 95
Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian

Sari nagusia



Bidaia Agentzia bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobeia, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercor.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren motbela eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

